

**KRIMINOLOGIAKO PROFESIONALEN ZALANTZAK ARGITZEKO  
BALIABIDEAK INTERNETEN-3:**

**Estilo Liburu elektronikoak**

**Irakasgaia: Euskararen Arauak eta Erabilerak Kriminologiaren alorrean**

*Verónica CHAMORRO ROJAS eta Asier GUTIÉRREZ FERNÁNDEZ*

**AURKIBIDEA: I. Sarrera. II. Erabilera orokorreko Estilo Liburuak:** 1. EIMA Estilo Liburua. 2. BERRIA Estilo Liburua. 3. HIKEA Estilo Liburua.. **III. UPV/EHUko Estilo Liburuak:** 1. AZPIDAZKI Estilo Liburua. 2. EHULKU Estilo Liburua. 3. EHUTSI Estilo Liburua. **IV. IVAPen Estilo Liburuak:** 1. IVAPeko Estilo Liburua 2. GALDEZKA Estilo Liburua. 3. Zalantza Dantza Estilo Liburua. **V. Estilo Liburu Juridikoak:** 1. Legebiltzarraren Estilo Liburua. 2. Justizia Saileko Estilo Fitxak. **VI. Gogoeta. VII. Iturriak.**

## **I. SARRERA**

Lan honen bidez, saiatuko gara azaltzen zein estilo liburu eskuragarri ditugun interneten euskararen erabilera egokirako eta hauek antolatuko ditugu orokorrenetatik zehatzenetara.

Aipatzekoa da gaur egun, euskararen normalizazioa lortzeko bidean gaudela, baina hala eta guztiz ere, euskara eta gaztelaniaren arteko elebitasuna, modu desorekatuan dagoela antzeman dezakegu. Honen adibidea, alde batetik, egun, erakunde publikoetan euskaraz aurkitzen ditugun dokumentuetan, agirietan edota bestelako idazkietan azaltzen diren akatsetan antzeman daiteke. Bestetik, kriminologia euskaraz egiten duten ikasle bezala esan dezakegu, zuzenbidean erabiltzen diren testuaz gain, beste batzuk ere behar izaten ditugula euskaraz itzuliak ez daudenak, eta horrek gure lana eta ikaskuntza prozesua zailtzen du.

Egoera honi aurre egiteko estilo liburuak ditugu. Hau da, jakin badakigu, estilo liburuak hainbat irizpide edo jarraibide desberdin aurkeztu dituztela, euskara zuzentasunez erabiltzeko. Bestetik, estilo liburuak ditugun zalantzak erantzuteaz eta argitzeaz gain, kasu askotan adibideak ematen dizkigute. Oso garrantzitsuak dira hizkuntza bat menperatzeko, bertan, hiztegiak ez bezala, erabilpenerako zalantzak argitzen direlako eta gomendioak ematen dizkigutelako. Gainera, testu estandarizatuak era egokian idazteko hainbat irizpide kontuan hartu beharko ditugu eta hauek estilo liburuak zehatzen dira, hauen xede nagusia testu zuzenak, egokiak eta argiak sortzeko irizpideak ematea baita. Beraz, hauen helburua da bai enpresetako langileen artean edota alor zehatz batean lanean dabiltzan agente guztien artean estiloa estandarizatzea.

Estilo liburu mota anitz aurki ditzakegu: alde batetik, orokorragoak diren hainbat estilo liburu; bestetik, UPV/EHUko estilo liburuak daude; jarraian, IVAPeko Estilo Liburuak aurki ditzakegu; eta bukatzeko, Estilo Liburu judizialak. Hori horrela, lehen aipatu dugun moduan, lan honen helburua, liburu hauek ezagutzera eramatea da, bakoitzaren inguruko ezaugarriak komentatuz eta hauen arteko konparazioak aurkeztuz.

Ondorioz, kriminologia arloan estilo liburuen garrantzia ikaragarri handia da, kaleko jendeak gure arloko profesionalen euskarazko ahozko zein idatzizko azalpenak ulertu behar dituztelako, izan ere, geroz eta gehiago dira etengabe harremanetan jartzen diren herritarrak mundu juridikoarekin eta horretan ere, noski, hartzen dugu parte. Hori dela eta, erabat lagungarriak eta garrantzitsuak izan dira estilo liburu hauek, alde batetik, euskara ahalik eta zuzentasun gehienez erabiltzea ahalbidetzen lagundu digutelako eta bestetik, arlo kriminologikoan sortu behar ditugun dokumentuak, argiak, ulergarriak, soilak eta zehatzak izaten laguntzen digutelako.

## II. ERABILERA OROKORREKO ESTILO LIBURUAK

Atal honetan, erabilera orokorreko estilo liburu batzuen inguruko aipamena egingo dugu:

### 1. EIMA Estilo Liburua

#### ▼ EIMAreko estilo-liburuak

- [Ortotipografia](#)
- [Kalko okerrak](#)
- [Onomastika / Izen-zerrendak](#)
- [Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak](#)
- [Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak](#)
- [Letra larriak erabiltzeko irizpideak](#)
- [Estandarizatu gabeko solasak nola eman ikasliburuetan](#)
- [Puntuazioa](#)
- [Ahoskera](#)


*EIMAreko Estilo Liburua* (Euskal IkasMaterialgintza), Hezkuntza Sailak 1982. urtean izeneko programa abian jarri zuen. Estilo liburu honen helburua, Autonomia Erkidegoko unibertsitatez besteko eskola eta institutuetan irakasleek izan dituzten hizkuntza-premietara moldatzea izan da neurri handi batean. Hori horrela, EIMAreko Estilo Liburuan ondorengo atalak agertzen dira:

- **Ortotipografia:** Atal honen barnean, ondorengo azpi-atal agertzen dira: letrakera arrunta, letrakera etzana, letrakera lodia, kakotxak, erdal izen bereziak, siglak, laburdurak, neurri-izenak, ehunekoak, eta abar.
- **Kalko okerrak:** Atal honen barnean, berriz, ondorengo azpi-atalak agertzen dira: perpaus barneko elementuen kalkoak (izen-sintagmaren esparrukoak eta aditzen erabilerari dagozkionak) eta perpausetik gorako kalkoak (bezala ustela, erakusleen testu-erabilerak, trinkotze-prozedurak eta gainerakoak).
- **Onomastika / Izen-zerrendak:** Atal honen bitartez, tradizio handiko idazleak edota lekuak garai desberdinetan nola idazten diren zalantzak argitzen saiatzen da.
- **Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak:** Perpausen sintaxiak, galdegai/mintzagai jokoak, kategoria gramatikalak (izena), izenondoak, eta abar bezalako atalak agertzen dira.
- **Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak:** Zientziaren inguruko oinarri eta irizpide orokorrak, zientziaren arlo guztietakoak diren arazoak, arloz arloko arazo espezifikoak eta biologiarekin eta informatikarekin arazo espezifikoak agertzen dira.
- **Letra larriak erabiltzeko irizpideak:** letra larriei buruzko ohar orokorrak, eta abar.
- **Estandarizatu gabeko solasak nola eman ikasliburuetan.**
- **Puntuazioa.**
- **Ahoskera**

### 2. BERRIA Estilo Liburua

*BERRIAreko Estilo Liburuaren* bitartez, idaztean eta irakurtzen izan ohi diren hainbat arazo seinatu, eta konponbide praktikoak biltzen dituzte. Estilo liburu honen helburu nagusia, erraz eta erakargarri komunikatzeko bidea zabaltzea eta euskara estandar egoki bat osatzea da.

Erabiltzaileek galderak egiteko aukera dute eta horretaz gain, gaikako hiztegiak aurki ditzakegu, non informazio eguneratua eskaintzen den. Esperientzian oinarritutako konponbide praktikoak biltzen dira bertan.



Hori horrela, kazetaritzako idazkuntzari buruzko informazioa aurkitzen da ondorengo atal hauetan banaturik:

- **Informazioa:** Informazioaren ikuspegia, generoen ezaugarriak eta informazio elementuak aztertzen dituzte.
- **Ortotipografia:** Letra larri eta xeheak, maiuskula txikiari, letra etzanari, zenbakien idazkerari, eta abar bezalako zalantzak argitzen saiatzen da.
- **Onomastika:** Atal honetan, oinarrizko irizpideak aurkituko dituzu izen bereziak idazteko: pertsona izenak, erakundeak, talde artistikoak, eta abar.
- **Mundua:** Munduko estatu guztiei eta estaturik gabeko hainbat naziori buruzko informazioa agertzen da eta herrialde, hiri edo eskualde bati euskaraz nola esaten zaion ez badakizu, erdaraz galdetzeko aukera ematen dizu eta honen itzulpena euskaraz jasotzeko.
- **Euskal Herria:** Euskal Herriko udalerrri eta herriak, herritar izenak, hainbat eta hainbat auzo, mendi, eta abar. Informazioa agertzen da.
- **Hiztegia:** Ortografiari, neologismoen grafia, morfosintaxia eta fraseologia gaien inguruko zalantzak argitzen dira atal honetan.

### 3. HIKEA Estilo Liburua





*EITBren Estilo liburua*, HIKEA (Hizkuntza Kontsultak Egiteko Aplikazioa) izenez ezagutua, EITBko lantaldeak sortu duen aplikazioa da, hedabideekin zerikusia duten euskarazko gaien (albisteak, dokumentalak, saioak, eta abar) inguruko bilaketa egiteko. Hala, irrati eta telebistarako eskuliburua kazetarientzat sortutako produktua da. Hori horrela, HIKEA estilo liburua lau ataletan banatzen da:

- **Lexikoa (hiztegi bilaketa):** Eguneroko erabilerako hiztegi orokorra da. Bilatu leihatilan nahi duzun hitza jartzen da eta erantzunak taula modura aterako dira.

Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Frantsesa	Latina	Gaia
doako telebista	televisión en abierto	free television			Ikus-entzunezkoak

- **Gramatika kontsultak (argibideen bilaketa):** Erabili beharreko gramatika irizpideak ematen dira. Bertan zerbait bilatzean hainbat adibide ateratzen dira.  
*Ehunekoak mugagabeen erabiltzen ditugu, zenbaki arruntak baitira.*

-  Euskaldunen % 50a ados daude referenduma egitearekin.
-  Euskaldunen % 50 ados daude referenduma egitearekin.

- **Lokuzioak.** Gazt/Eusk edo Eusk/Gazt espaideak bilatu daitezke bertan.

Esapidea
IK: ver mundo

#### IK: VER MUNDO

correr mundo, rodar mundo

- **Hiztegi pastoralala:**

Zuberera	Estandarra
handius	handios

**ZUBERERA:** handius

**ESTANDARRA:** handios

**ERREFERENTZIA:** Orotariko Euskal Hiztegia

**JAKINGARRIAK:** adj. / Harroa.

### III. UPV/EHU ESTILO LIBURUAK

AZPIDAZKI, EHULKU eta EHUTSI kontsulta guneak, UPV/EHUren Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzak garatutako hiru baliabide dira. Atal honetan zehar, hiru baliabide horiek aztertuko ditugu.

#### 1. AZPIDAZKI Estilo Liburua

**AZPIDAZKI**, 2004. urtean Euskal Herriko Unibertsitateak abian jarri zuen aplikazio informatikoa da, Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalari laguntzeko asmotan, euskaraz errazago eta erosoago aritzeko lanean. Hala ere, Administrazio eta zerbitzuetako langileez gain, ohiko zalantzak argitu nahi dituen orok aurki dezake hemen behar duen laguntza, Argitokia izeneko atalean hain zuzen ere.



Zer da?

**azpidazki**

Jakiteko  
Esaldiak  
Idazki ereduak

**Xuxen 5: testu zuzenagoak euskaraz**

Ordenagailuz lan egitean, zuzentzaile ortografikoak oso tresna baliagarriak dira testuen gutxieneko zuzentasuna bermatzeko, eta euskarazko testuetarako, duela hogeit...

Hiztegia

Idatzi zireg aldera

AZPIDAZKI datu basea aztertzen badugu, hiru arlo nagusitan eraikia dagoela ohartu gaitzke:

1.Jakiteko atala: Atal honetan, euskara zuzen erabiltzeko oinarriko atalak agertzen dira: data, ordua, zenbakiak, helbideak, laburtzapenak, letra larriak eta xeheak, puntuazio-zeinuak, eta abar.

2.Esaldia atala: Komunikazioetarako esaldiak eta agurrak atalak agertzen dira.

3.Idazki ereduak atala: Atal honetan, hizkuntza irizpideak, gomendioak eta kartel ereduak agertzen dira.

## 2. EHULKU Estilo Liburua

**EHULKU**, UPV/EHUn euskararen erabilera zuzena eta egokia bultzatzeko zerbitzua da. Baliabide honen bitartez, hizkuntza-arazoei irtenbide egoki bat bilatzen saiatzea lortu nahi du. Hori horrela, unibertsitate publikoan lanean dabilen orori, irakasle eta gainerako pertsoneri zuzendutako kontsulta gunea da. Zerbitzua honen barruan, honako aukerak agertzen dira:


- Galderak egiteko gunea.
- Beste galdera-erantzunak kontsultatzeko aukera.
- Euskara Zerbitzuaren testu-zuzenketak kontsultatu.
- Hizkuntza-aholku didaktikoak kontsultatu.



## 3. EHUTSI Estilo Liburua

**EHUTSIren Estilo Liburuak**, euskara ongi erabiltzen laguntzeko aplikazioa da. Bertan, aurkibideko itemen zerrendan klik eginez, bost gai desberdinenez osatua dagoela ikus dezakegu, bakoitzaren barnean, gai hauen inguruko informazio anitzeko *pdf* dokumentu desberdinez osaturik:

- Aditza
- Izen sintagma, deklinabidea
- Perpaus bakuna
- Perpaus elkartuak
- Hiztegia eta zenbait hitzen erabilera



Nahiz eta hiru baliabide hauek helburu berdina izan, esan beharra dago bakoitzaren arteko desberdintasunak nahiko agerikoak direla. Adibidez, AZPIDAZKI eta EHULKUren arteko desberdintasun nagusia da gure ustez, alde batetik, AZPIDAZKI erabiltzea errazagoa dela, informazioa ataletan oso ondo egituratuta dagoelako.

Egia da ere, EHULKU ez dela hain zaila erabiltzekoa, baina atal batean klikatzerakoan, leiho berri bat irekitzen dizu eta kasu batzuetan egindako bilaketa eromen batean bihurtu daiteke. Bestetik, EHULKUren alde esan beharra daukat, “kontsulta gunea” izeneko atal bat duela, non, honen bitartez, euskararen erabilera orokorrak, hiztegiak eta beste helbide interesgarri batzuetara jotzeko aukera eskaintzen du. Atal honi esker, EHULKUK argitzen ez dituen zalantzak, beste hiztegi batzuek argitu dezakete.

Bigarrenik, AZPIDAZKI eta EUTSI zerbitzuen arteko desberdintasun nagusia da, EHUTSIren egitura oso sinplea dirudiela AZPIDAZKI baliabidearekin konparatuz, baina bertan dagoen informazioa nahiko errez aurkitu daitekeela esan beharra dago. Honetaz gain, AZPIDAKIk galdera-erantzunak egiteko atal bat dauka, baina EUTSI zerbitzuak ez du horrelako atalik erakusten, nahiz eta, “erabiltzaileentzako oharra” izeneko atalean, EUTSIren egileen eta arduradunen mezu elektronikoak jartzen dituzten edozein iradokizun bidali nahi bada.

Azkenik, EHULKU eta EHUTSI baliabideen arteko desberdintasun nagusia, EHULKU zerbitzuak galdera-erantzun atal bat aurkezten du, non, galderak bilatzeko, galdera guztiak ikusteko eta nahi izanez gero, galderak bidaltzeko aukera eskaintzen du, EHUTSIk ez duen moduan. Hori horrela, EHULKU askoz ere osatua dagoen zerbitzua dela iruditzen zaigu.

## IV. IVAPEN ESTILO LIBURUAK

Atal honetan zehar aztertuko ditugu IVAPek egindako hiru estilo liburuak. Esan dezakegu hauek aurreko ataletan landutako estilo liburuak baino zehatzagoak direla. Batez ere, administrazioari zuzendutako estilo liburuak dira, nahiz eta edonorentzako erabilgarria izan. Estilo liburu hauen artean landuko ditugu IVAPeko Estilo Liburua, GALDEZKA estilo liburua eta ZALANTZA DANTZA Estilo Liburua.

### 1. IVAPeko Estilo Liburua



*IVAPeko Estilo Liburuak* irizpide desberdinak ematen ditu testu zuzenak, jatorrak, egokiak eta argiak idazteko. Azalpen ulergarriak, eta aholku eta adibide ugari ditu bertan. Estilo liburu honen helburu nagusia da administrazioan kalitatezkoa den komunikazioa sustatzea. Zazpi ataletan antolatuta dago eta atal bakoitzean gai bat lantzen da; idazketa-prozesua, gramatika, estiloa, diseinua, zuzenketa, idazkiak eta osagarriak landuz.

- **Idazkera prozesua (29-44 orri.):** Atal honetan laburpen modura azaltzen da idazleak dituen zailtasunak testu bat idazterakoan, idatzi aurreko lana, ideiak sortzeko estrategiak eta testuaren antolaketa besteak beste. Hau guztia kontuan hartu behar da testuaren forma erabakitzeke, hauen artean, testuaren helburua, nori idatzita dagoen, non eta nola irakurriko den testua, etab. Gainera, pentsatu behar dugu testua nola idatziko dugun, hau da, zenbat paragrafoetan banatuko dugun, zenbat orrialde izango dituen etab.
- **Gramatika (45-116 orri.):** Testuaren zuzentasuna lantzen da, hots, ortografia, deklinabideak, zenbakien idazkerari buruzko zalantzak etab. argitzen dira. Horretarako,

Euskaltzaindiak emandako gomendioak kontuan hartu behar dira. Horrekin batera betiko zalantzak argitzen dira, adibidez H hizkiari buruzkoak edota maileguak idaztekoan kontuan hartu beharrekoak...

- **Estiloa (117-190 orri.):** Testu ulergarriak egitea bilatzen du, kalkoak eta erdal formulak ekidituz eta euskara jatorra sustatuz. Batez ere kalkoak lantzen dira, hauek arazo gehien ekartzen baitituzte.
- **Diseinua (191-232 orri.):** Testua erakargarria bihurtzeko gomendioak ematen dira. Horretarako, lerroen, marjinen, letraren neurria etab. lantzen dira.
- **Zuzenketa (233-242 orri.):** Aurreko guztia erabilgarri izateko akats guztiak zuzendu behar dira.
- **IVAP-eko idazkiak (243-346 orri.):** *Testuak zuzenak izateko zer itxura izan behar duten azaltzen da.* IVAPek 30 idazki desberdin eskuratzen ditu. Testu estandarizatu desberdinak ondo egituratzeko irizpide desberdinak biltzen dira.
- **Osagarriak (347-427 orri.):** Administrazioaren langileei lagungarri izan daitekeen informazioa laburtzen da atal honetan.

## 2. GALDEZKA Estilo Liburua

**GALDEZKAK**, eguneroko euskararen sor daitezkeen zalantzei erantzuten saiatzen da. Administrazioko hizkera errazteko baliabide hau sortu zen beste baliabide batean oinarrituz, *Duda-Mudan* hain zuzen ere. Erabiltzaileek sortutako zalantzetan oinarritzen da. Estilo liburu honen helburu nagusia kalitatezko euskara ahalik eta jende gehienari zabaltzea da azalpen ulergarriak emanez eta terminologia alde batera utziz. Esan dezakegu, **GALDEZKA** erantzun-bilduma bat dela eta ez gramatika bat, ez baitio kategoria bati bakarrik erantzuten, baizik eta orokorrean sortzen diren zalantza desberdinei erreparatzen diolako.



Hori horrela, bost atal nagusitan antolatzen da:

- **Puntuazioa (17-54 orri.):** Koma, puntu eta koma, bi puntuak, letra etzana eta kakotxak eta parentesi, marrak eta komei buruz zalantzak argitzen ditu.
- **Izen-sintagma (55-74 orri.):** Deklinabide-atzizki berdinak elkarren ondoan, *bat*, aposizioa eta deklinabidea eta marraz idatzi behar diren hitz-elkartuak ditu azpi atal gisa.
- **Aditz-sintagma (75-146 orri.):** Aditzaren elipsia, kortesia, ahal eta ezin, narraziogintza: denbora- eta aspektu-jauziak, tratamendua, erabilera okerrak, betebeharrak, eskubideak eta debekuak adierazteko moduak, aspektuaren erabilera okerrak, eta *arazi* azpi atalak lantzen ditu.
- **Joskera (147-246 orri.):** Perpaus menderatu faltsuak, erdal formulak euskaraz: nominalizazioaren eragina, galderak nola markatu, definizioak, iragarleak / mugarriak, ere,



baino gehiago, erdal gerundio okerrak, galdegaia eta hitz-ordena, atzerakarga, alferrikako erlatiboak eta *zein* erlatiboak ditu azpi ataltzat.

- **Terminologia (247-282 orri.):** Erdararik datozkigun hitzen itzulpena, hizkera metaforikoa, umeen kontuak, eta adjektibo erreferentzialak lantzen ditu.
- **Bestelakoak (283-340 orri.):** Itzulpena: testu elebidunak, nola diseinatu testu elebidunak, bibliografiak, A, B, C, D motako galderak eta zerrendak, harridura-perpauak eta laburtzapenak egiteko kontuan hartu beharreko irizpideak eta azalpenak ematen ditu.

Atal bakoitzean sarrera txiki bat dago non azaltzen den atala zeri buruz izango den eta zein den azpi atal horren zailtasuna edo gehien egiten den akatsa. Honen ondoren adibideak aipatzen dira, erabiltzaileak errazago ulertzeko azaldutakoa. Kasu bakoitzeko hainbat adibide azaltzen dira, erabili beharreko forma argi geratzeko eta zalantzarik ez egoteko.

### 3. Zalantza Dantza Estilo Liburua

*Zalantza Dantza Estilo Liburuan*, ortografiari, hiztegiari, morfologiari eta joskerari buruzko eguneroko zalantzak argitzen dira, hauek alfabetikoki antolatuta egonda. Zalantza bakoitzeko azalpen labur bat dago eta horrekin batera adibideak daude. Aurreko estilo liburuetan bezala, honen xede nagusia kalitatezko idatziak egiteko irizpideak ematea da Euskaltzaindiak emandako gomendioak kontuan hartuta azalpenak egiteko.



Bi ohar egin behar dira: alde batetik, hainbat irizpidetan euskara batuari egiten zaiola erreferentzia, hau da, irizpide hauetako batzuk *gomendatzen* dira euskara batuan erabiltzea eta hauek Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan jasotakoak izango dira. Bestetik, adierazitakoa izar batekin batera agertu daitekela. Honek esan nahi du esamolde horiek desegokiak direla. Ohar hauek hobeto ulertzeko adibide bana jarriko dugu:

*“AUTO, BERIBIL/KOTXE: Erabili auto edo beribil euskara batuan. Hala ere, kotxe hitza zaldigurdi, bagoi, eta abarren kidea denean edo Hegoaldean haurrak eramatekoa denean bakarrik erabiliko dugu maila jasoan.”*

*“ETA GERO (\*BILERA ETA GERO): Eta gero aditzarekin batera joaten da: bildu eta gero, erabaki eta gero...; ez, ordea, izenarekin: \*bilera eta gero, \*erabakia eta gero... Horretarako badago beste modurik: bileraren ondoren, erabakiaren ondoren.*

### V. ESTILO LIBURU JURIDIKOAK

Bukatzeko, estilo liburu juridikoak aztertuko ditugu. Hauek Legebiltzarraren Estilo Liburua eta Justizia Saileko Estilo Fitxak dira. Arlo juridikorako estilo liburuak direnez, batez ere zuzenbide arloan jarduten duten profesionalen bideratuta daude, eta hein batean esan genezake



kriminologozat ere zuzenduta daudela. Estilo liburu hauen helburua da arlo hauetan euskara modernizatzea eta modu egokian erabiltzea.

## 1. Legebiltzarraren Estilo Liburua

Eusko Legebiltzarraren web-orrialdean, lehendabizi “Zerbitzuak” izeneko atalean eta ondoren, “Hizkuntza arloan” izeneko atalean klik eginez, hiru baliabide desberdin aurreikusten ditu: euskera-gaztelania, idazkera arauak eta hiztegia (definizioak). Kasu honetan, idazkera araua izeneko atalera joko dugu, hauxe baita legeak idazterako orduan, errespetatu eta jarraitu beharreko irizpideak. Atal honetan klikatzerakoan, arau guzti hauen inguruko sailkapen txiki bat aurkezten zaigu, non, denera sei atalez osatua dagoen:

- **Puntuazioa:** Atal honetan, puntuazioaren inguruko arauak agertzen dira: puntu, koma, puntu eta koma, eten puntuak, bi puntuak, enumerazioa, parentesiak, marra luzeak, kakotxak, marra txikia eta beste batzuk. Atal bakoitzaren inguruan, azalpen labur bat aurkezten du eta azkenik adibideak.
- **Ortotipografia:** Atal honen barruan sartzen dira, hain zuzen ere, letra larriak, letra etzana, kopuruak, izen bereziak, maileguak edo labur hitzak.
- **Sintaxia kontuak:** Sintaxiaren barruan kokatzen diren azpiatalak aposizioak, genitiboen erabilera, izenondo erreferentzialak, eta marken ekonomia koordinazioan ditugu.
- **Tratamendua:** Administrazioaren arloan, eta batez ere Legebiltzarrean legeak idazteko orduan, testuei beharrezko tratamendua ematea. Beraz, atal honen bitartez, modu labur batean, hainbat ideia plazaratzen dira tratamenduaren inguruko ideiak, hala nola, tratamendu formalak nola erabili, administrazio batetik besterako idazkietan, administrazioaren gutunetan, hitzaldietan, testu barruan eta beste hainbeste gizarte-harremanetan.
- **Ahozko testuak zuzentzeko irizpideak:** Kontuan hartu beharreko hizlarien inguruko azalpenak, hizkuntzaren ingurukoa eta hartzailearen inguruko azalpenak ematen dira.
- **Gaztelania formaletik itzultzeko estrategiak:** Atal honetan, gaztelania administratibo eta juridikoko testuen itzulpenak nola egin azaltzen dizkigu. Honen barnean, hiru multzo nagusi agertzen dira, bakoitzak dituen azpi-multzoekin: estilistika, antolaketa eta egiturak.

The screenshot shows the website of the Eusko Legebiltzarra (Basque Parliament). The main navigation menu includes: [Jarduera](#), [Nor da nor](#), [Zerbitzuak](#), [Dokumentuak](#), [Erregistro elektronikoa](#), [Gu ezagutzeko](#), [Harpidetu zaituz](#), [Prentsa](#), [Argitalpenak](#), [Oposizioak](#), [Kontratatzailearen profila](#), [Hizkuntza arloa](#), [Harremanetarako](#), [Mapa](#), [Irisgarritasuna](#), and [Español](#). The breadcrumb trail is: [Zerbitzuak](#) > [Hizkuntza arloa](#) > [Idazkera arauak](#). The main content area is titled 'IDAZTEKO, ITZULTZEKO ETA ZUZENTZEKO JARRAIBIDEAK' and contains a list of links: [Puntuazioa](#), [Ortotipografia](#), [Sintaxia kontuak](#), [Tratamendua](#), [Ahozko testuak zuzentzeko irizpideak](#), and [Gaztelania formaletik itzultzeko estrategiak](#). A red box highlights the last three links.

## 2. Justizia Saileko Estilo Fitxak

Justizia administrazioaren web-orrialdearen liburutegian, euskarari buruzko gaia dugu, non, bertan, hainbat irizpide edo azalpen aurki ditzakegu euskara modu zuzenean erabiltzeko. Web-gunearen eskuinaldean, zerrenda bat agertzen da euskararekin zerikusia duten hainbat dokumentu motekin, besteak beste, akordioak, araudiak, gramatika araua, inprimakiak...

**Dokumentu-motak**

- > Denak
- > Akordioa
- > Aldizkaria
- > Araudia
- > Dekretua
- > Errege Dekretua
- > Estadistikak
- > Gida
- > Gidaliburua
- > Gramatika-araua
- > Inprimakia
- > Legea
- > Legea
- > Oharra

Aurrekoarekin batera, goialdean leihatila bat agertzen da, bertan dokumentuen bilaketak egiteko. Agertzen diren dokumentuak euskaraz nahiz erdaraz idatitza egongo dira. Eta honen azpian euskara eta justiziarekin lotura duten hainbat testu agertzen dira.



Lehen aipatutako “gramatika araua” estekan sartuz gero, arau eta irizpide zerrenda bat agertuko zaigu. Esteka horietan zehar euskararen erabilerrari buruzko hainbat aholku ematen dira besteak beste, testu antolatzaileak edo administrazio testuak euskaratzeko irizpideak eskuratzen dira. Pdf hauen zehar azaltzen dira hainbat gidalerro euskara era egokian erabiltzeko edota antzeko bi esapideen arteko desberdintasunak. Azalpen argiak ematen dira edonork ulertu ahal izateko.

- guzti hau / hau guztia (pdf, 43 KB)  
guzti hau / hau guztia
- ari / -lari (pdf, 45 KB)  
-ari / -lari
- ario / -ari (pdf, 43 KB)  
-ario / -ari
- Bera / berdina (pdf, 43 KB)  
Bera / berdina
- Beste / besteko (pdf, 88 KB)  
Beste / besteko
- Nor/nortzuk, zer/zertzuk (pdf, 43 KB)  
Nor/nortzuk, zer/zertzuk
- Ohiko / ohizko (pdf, 43 KB)  
Ohiko / ohizko
- Administrazioako testuak euskaratzen (pdf, 193 KB)  
Administrazioako testuak euskaratzen.

**VI. GOGOETA**



Baliabide hauek guztiak behin behatuz gero, esan dezakegu hauen oinarrian euskararen erabilera egokirako irizpideak daudela, hizkuntza zaindua eta jatorra sustatzeko nahian. Hizkuntza zaindu eta egokia erabiltzeko ahalegina sustatu nahi dute, herritarren artean euskarazko gaitasuna, sentiberatasuna eta erabilera areagotzeko konpromisoarekin. Beraz, estilo-liburuak ezinbestekoak dira herritarrentzat nahiz administrazioan lan egiten dutenen pertsonentzat, euskararen hobekuntza lortzen laguntzen duten tresnak edota baliabideak baitira.

Alde batetik, hitzen erabilera orokorreari buruzko zalantzak daudenean, hala nola, hitzen ortotipografiaren inguruan, kalko okerren inguruan etab. komenigarria iruditzen zaigun estilo liburua, EIMAREN Estilo Liburua da, azken batean, arazo guzti hauen inguruko informazio anitz arki daitekeelako bertan.

Bestetik, UPV/EHUko Estilo Liburuen artean, gure gomendioa, AZPIDAZKI Estilo Liburura jotzea izango litzateke, gehien osaturiko estilo liburua baita. Baina AZPIDAZKIk zure zalantza erantzuten ez badu, EHULKUren Estilo Liburuko “kontsulta gunera” joatea komenigarria izango litzateke.

Hirugarrenik, IVAPeko estilo liburuen artean, esan dezakegu IVAPeko Estilo Liburua erabilgarriena izan daitekeela, liburu multzo hauen artean atal zabalenak lantzen baititu euskara erabiltzen dugunoi sortu ahal zaizkigun zalantza gehienei erantzunez. Horrekin batera, antolatze modua dela eta, erraza da bilatzea zalantza zehatz bat. GALDEZKA estilo liburu berriz, erabiltzaileek egiten dituzten galderetan oinarrituta dagoenez, benetako zalantzei erantzuten dio. Azkenik, Zalantza Dantza estilo liburu egokia izango litzateke zalantza zehatz bat izatekotan, alfabetikoki antolatua dagoenez oso erraza izango litzatekeelako bilatzea.

Azkenik, Euskal Legebiltzarraren Estilo Liburu, erabat apartekoa da ditugun zalantzak argitzeko, azken batean, atal bakoitzaren inguruko informazio laburra eskaintzeaz gain, hauen inguruko hainbat adibideen bitartez, argiago izaten laguntzen duelako. Baina pentsatzen dugu, Justizia Saileko estilo fitxak euskararen erabilerari buruzko zalantza orokorrei hobeto erantzuten diola. Beste hainbat baliabidek aipatzen dituzten zalantzei egiten dio erreferentzia, baina arazo hauetaz gain bestelako gaiak lantzen dira, adibidez testuak euskaratzeari buruzkoak edo zuzenketari buruzko irizpideak emanez. Beraz, agerikoa da, baliabide honek, lexikoa lantzeaz gain, erabilera zuzenari buruzko aholkuak ere ematen dituela.

Laburbilduz, kriminologiako ikasle bezala, uste dugu baliabide hauek oso erabilgarriak eta beharrezkoak direla, azken batean, testu estandarizatuak nola idatzi behar diren irizpideen ezagutzak behar ditugulako, eta ondorioz, aipatutako estilo liburuak ezin hobeak dira.

## V. ITURRIAK

AZPIDAZKI ESTILO LIBURUA: <http://www.ehu.es/azpidazki/default.asp?itemID=44>

EHULKU ESTILO LIBURUA: <https://www.ehu.es/eu/web/euskara/ehulku>

EHUTSI ESTILO LIBURUA: [http://www.ehu.es/ehutsi/edukiak/informacion/ehutsi/eu\\_ehutsi/zer\\_den.html](http://www.ehu.es/ehutsi/edukiak/informacion/ehutsi/eu_ehutsi/zer_den.html)

EIMA ESTILO LIBURUA: <http://www.irale.hezkuntza.net/web/donostiako-irale/eimaren-estilo-liburukiak>

EITB ESTILO LIBURUA: [http://www.eitb.eus/multimedia/documentos/2010/02/22/247859/HIKEA\\_que\\_es.pdf](http://www.eitb.eus/multimedia/documentos/2010/02/22/247859/HIKEA_que_es.pdf)

BERRIA ESTILO LIBURUA: <http://www.berria.eus/estiloliburu/>

IVAPEKO ESTILO LIBURUA:

[http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze\\_argit/es\\_def/adjuntos/estilo\\_liburu.pdf](http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/es_def/adjuntos/estilo_liburu.pdf)

GALDEZKA: <http://www.arrigorriaga.net/es-ES/Atuservicio/Euskera/Gramtica/02-%20Galdezka.pdf>

ZALANTZA DANTZA: [http://www.ehu.es/azpidazki/PDFak/Zalantza\\_dantza.pdf](http://www.ehu.es/azpidazki/PDFak/Zalantza_dantza.pdf)

EUSKO LEGEBILTZARRAREN ESTILO LIBURUA: [http://www.parlamento.euskadi.net/e\\_normas\\_redaccion.html](http://www.parlamento.euskadi.net/e_normas_redaccion.html)

JUSTIZIA SAILEKO ESTILO-FITXAK:

<http://www.justizia.net/liburutegia/euskara-eta-justizia?ie=si&tipo=1241022303360>